

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### **2021 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena**

Aramaioko Udalbatzak, 2020ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zituen, behin behineko izaeraz 2021 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak arautzen dituen ordenantzaren aldaketak.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16 artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinarazten da behin behineko izaeraz onartu diren zerga ordenantza eta tasak arautuko dituen ordenantzako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikuluekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, udaletxeko bulego orokorrean, 30 egunez, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztezko; erreklamaziorik ez bada aurkezten erakustaldi publikoaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko da.

Aramaio, 2020ko urriaren 30a

*Alkatea*

*LIERNI ALTUNA UGARTE*